

EUSKO LEGBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGBILTZARRA PARLAMENTO VASCO ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL	
2023 ABE DIO. 20	
SARRERA/ ENTRADA	7341
IRTEERA/ SALIDA

Dokumentu mota / Tipo de documento: ZUZENKETAK

Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: ARANBURU, MARKEL (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario EA-NV/ES-SV

Data / Fecha 2023.12.20

Espediente zb / N° de expediente 12\09\01\00\00037

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa

Lankidetzarako eta elkartasunerako Euskal Lege-proiektua // Proyecto de Ley Vasca de Cooperación y Solidaridad

EA-NV

ES-SV



ENMIENDA 1. ZUZENKETA (de adición-gehitzekoa)

4.artikulua-Helburuak

e) letra gehitu da, eta honela dio:

e) Antolatutako gizarte zibileko erakundeak indartzea eta laguntzea, bai Euskadikoak, bai Hegoaldeko herrialde eta lurralteetakoak, elkartea-sarea sustatz, gizarte demokratiko, inklusibo, horizontal eta eraldatzaileen sinbolo gisa.

Zuzenketaren justifikazioa:

Zuzenketa hau Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 2023ko urriaren 2ko agerraldian egindako ekarpenari dagokio.

Ideologia neokonitserbadoreek prozesu demokratikoak mehatxatzen dituzten testuinguru honetan, giza eskubideek atzerapausoak jasan dituzte eta defendatzaileek jazarpena eta kriminalizazioa jasaten dituzte, lankidetza desentralizatuak lehentasuna eman behar dio herrialde bakoitzeko gizarte zibilak indartzeari bérme demokratiko gisa, gizarte horiek beren garapen-ereduak definitu ahal izan ditzaten.

Gizarte zibil artikulatu eta gaitua funtsezkoa da edozein sistema demokratikotan. Anitzasuna ordezkatzen eta sustatzen du, eta politika eraginkorragoak, garapen bidezko eta iraunkorra eta hazkunde integratzailea lortzen lagun dezake. Eragile garrantzitsua da bakea sustatzeko eta gatazkak konpontzeko. Herritarren kezkak egituratzean, gizarte zibileko erakundeek esparru publikoan jarduten dute, demokrazia parte-hartzailea indartzen duten ekimenetan parte hartuz. Gobernantza garden eta arduratsuaren eskaera gero eta handiagoa da.

GGKEek tokian tokiko bazkideekin egiten dute lan, eta bazkide horiek gizarte zibileko erakundeak izan ohi dira. Ahal denean, tokiko erakunde publikoekin ere lan egiten da, bai zuzenean, bai erakunde horiekin partzuergoan. Ildo horretan, gizarte zibileko erakundeen zeregina tokian bertan sustatzeak abantaila handiak ditu. Besteak beste, egonkortasun estrategikoa ematen diete lankidetza-ekintzei, batez ere politika publikoak oso aldakorrak diren egoeretan eta karguen txandakatzeetan, eta aukera ematen dute periferia sozialetan modu artikulatuan lan egiteko, non erakundeak ez dauden hain presente, herritarrek beren garapenaren definizioan parte hartzea eta protagonismoa izatea sustatzen duten tokiko sareak sortzen laguntzeko eta administrazioari kontrol sozialeko espazioak sortzen laguntzeko. Horiek guztiek Lankidetza eta Elkartasunari buruzko Legearen berariazko helburua izan behar dute.



Enmienda 2. Zuzenketa (de modificación-aldatzekoa):

15. artikulua. Lankidetza- eta elkartasun-modalitateak

Aldatu egiten da, eta honela dioen lekuan:

1- Lankidetza- eta elkartasun-arloko jarduerak garatzeko, euskal sektore publikoak, bere eskumenen arabera, lankidetzarako politika publikoaren esku jarriko dituzte lege honen helburuak eraginkortasunez lortzeko beharrezkotzat jotzen diren modalitate, tresna eta prozedura guztiak.

2- Euskal sektore publikoak Lankidetza- eta elkartasun-arloko jarduerak egin ahal izango dituzte zuzenean edo, bestek beste, legean ezarritako helburu eta printzipioen arabera dihardutenean gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen eta erakunde multilateralen, eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bitartez.

3- Lankidetza-politika egikaritzeko bideratu behar diren jarduerak dagokion administrazioaren funts propioekin egin daitezke, edo beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek lagatako funtsekin, edo herritarrek eurek transferitutako funtsekin.

4- Euskal sektore publikoak giza garapena, jasangarritasuna, ekintza humanitarioa eta gizartea eraldatzeko hezkuntza sustatu ahal izango ditu, ondoko modalitate hauen bitartez, bestek beste:

a) Lankidetza teknikoa eta ezagutzen mobilizazioa: ezagutzen, kudeaketa-esperientzien eta politika-diseinuen trukean eta beste truke-mota batzuetan oinarritutako jarduerak, lankidetza- eta elkartasun-eragileen gaitasun instituzionalak eta antolatzekoak handitzeko eta irtenbide berritzaile eta eraginkorrak partekatzeko xedea dutenak, erronka komunei aurre egiteko.

b) Lankidetza ekonomikoa eta ekarpenak gauzatan: ondasunen eta finantza-baliabideen transferentzia, funtsean dohaintza moduan, proiektuetara eta beste tresna espezializatu batzuetara bideratuak.

c) Lankidetza finantzarioa: izaera etiko, sozial eta solidarioko tresna espezializatuak, Hegoaldeko erakundeen, organizazioen eta komunitateen garapen sozioekonomikora eta finantza-gaitasunak handiagotzen bideratuak.


d) Prestakuntzarako eta ezagutza sortzeko lankidetza: lankidetza-eragileen gaitasun profesionalak, teknikoak eta politikoak areagotzea, ikerketa indartzeko eta herritarren kontzientzia kritikoa eta solidarioa zabaltzeko helburuak dituzten bekak, trukeak eta prestakuntzak.

Aurrerantzean, hurrengoa esan behar du:

15. artikulua. Lankidetza- eta elkartasun-modalitateak

1- Lankidetza- eta elkartasun-arloko jarduerak garatzeko, euskal sektore publikoak, bere eskumenen arabera, lankidetzarako politika publikoaren esku jarriko dituzte lege honen helburuak eraginkortasunez lortzeko beharrezkotzat jotzen diren modalitate, tresna eta prozedura guztiak.

2- Euskal sektore publikoak Lankidetza- eta elkartasun-arloko jarduerak egin ahal izango dituzte zuzenean edo, bestek beste, gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen eta erakunde multilateralen, eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bitartez. Zuzenean edo



zeharka egindako jardueña guztiak lege honetan aurreikusitako printzipio eta ikuspegiak beteko dituzte, eta kalitate, kontu-estate, gardentasun eta ebaluazio estandar berberak izango dituzte.

3- Lankidetza-politika egikaritzeko bideratu behar diren jarduerak dagokion administrazioaren funts propioekin egin daitezke, edo beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek lagatako funtsekin, edo herritarrek eurek transferitutako funtsekin.

4- Euskal administrazioek beren jardueren osagarritasuna, koordinazioa eta koherenzia zainduko dute gainerako eragileek sustatzen dituztenekiko, bereziki gobernuz kanpoko erakundeek, 7. artikuluko e) idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

5- Euskal sektore publikoak giza garapena, jasangarritasuna, ekintza humanitarioa eta gizarte eraldatzeko hezkuntza sustatu ahal izango ditu, ondoko modalitate hauen bitartez, besteak beste:

a) Lankidetza teknikoa eta ezagutzen mobilizazioa: ezagutzen, kudeaketa-esperientzien eta politika-diseinuen trukean eta beste truke-mota batuetan oinarritutako jarduerak, lankidetza- eta elkartasun-eragileen gaitasun instituzionalak eta antolatzekoak handitzeko eta irtenbide berritzaile eta eraginkorrik partekatzeko xedea dutenak, erronka komunei aurre egiteko.

b) Lankidetza ekonomikoa eta ekarpenak gauzatan: ondasunen eta finantza-baliabideen transferentzia, funtsean dohaintza moduan, proiektuetara eta beste tresna espezializatu batzuetara bideratuak.

c) Lankidetza finantzarioa: izaera etiko, sozial eta solidarioko tresna espezializatuak, hala nola kreditu edo bermeenak, Hegoaldeko erakundeen, organizazioen eta komunitateen garapen sozioekonomikora eta finantz-aitasunak handiagotzera bideratuak.

d) Prestakuntzarako eta ezagutzá sortzeko lankidetza: lankidetza-eragileen gaitasun profesionalak, teknikoak eta politikoak areagotzea, ikerketa indartzeko eta herritarren kontzentzia kritikoa eta solidarioa zabaltzeko helburuak dituzten bekak, trukeak eta prestakuntzak.

Zuzenketaren justifikazioa:

Zuzenketa hau Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 2023ko urriaren 2ko agerraldian eta Carolina Fundazioko zuzendari Sandahuja jaunak 2023ko urriaren 25eko agerraldian egindako ekarpenei erantzuten die.

2. eta 4. paragrafoetan proposatutako gehikuntzak bermatu nahi da zuzeneko lankidetzak konkurrentzia-erregimenean emandako dirulaguntzen kalitate-estandar eta kontu-estate berei erantzuten diela; lagunza horiek legearen helburuak lortzera zuzenduta egongo dira beti, haien printzipioak eta ikuspegiak errespetatuz, horiek gauzatzen dituen agentearen izaera publikoa edo pribatua, tokikoa, nazionala edo nazioartekoa edozein dela ere; eta horien bidez ez dela ordezkatuko gizarte-eragileek egindako lana, baizik eta koherenzia, osagarritasuna eta koordinazioa bilatuko direla.

5. paragrafoko c) idatz-zatian proposatutako gehikuntzaren helburua da finantza-lankidetza ezartzeko tresna espezifikoak aktibatzea.



ENMIENDA 3. ZUZENKETA (DE MODIFICACIÓN-ALDATZEKOA):

16. artikulua. Finantzaketa

Aldatu egiten da, eta honela dioen lekuau:

1- Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte beren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzoak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak.

2- Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako erakundeekin batera nazio errenta gordinaren % 0,7 bideratzeko helburu komunean aurrera egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administratzio orokorrak urtero ezarriko ditu lankidetzara eta elkartasunera bideratutako ekarpenak. 2030. urtean guztizko gastu ez-finantzario osoaren % 0,7 lortzeko, urte anitzeko planen bidez finkatuko ditu tarteko helburuak.

3- Ondorio horietarako, euskal lankidetza- eta elkartasun-politika publikora bideratutako aurrekontuko baliabide ekonomikoak handitu ahal izango dira pertsona fisikoek edo juridikoek eta estatu eta nazioarteko erakunde eta instituzio publikoek edo pribatuek egindako ekarpenekin.

Aurrerantzean, hurrengoa esan behar du:

16. artikulua. Finantzaketa

1- Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte beren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzoak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak.

2- Euskal sektore publikoak eta Estatuko gainerako erakundeek helburu bera dute; errenta nazional gordinaren %0,7, garapenerako laguntza ofizialera bideratzea.

3- Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, Eusko Legebiltzarrak onartutakoak, urtero, gutxienez, guztizko gastuaren %0,7 bideratuko du lankidetza- eta elkartasun-politikara.

4- Lankidetza-aurrekontuaren urteko gehikuntza, gutxienez, aurrekontu orokorraren urteko igoeraren proporcionala izango da; hori guztia, garapen globaleko helburuen irismenean laguntzen duten beste funts batzuk kontuan hartu gabe.

5- Ondorio horietarako, euskal lankidetza- eta elkartasun-politika publikora bideratutako aurrekontuko baliabide ekonomikoak handitu ahal izango dira pertsona fisikoek edo juridikoek eta estatu eta nazioarteko erakunde eta instituzio publikoek edo pribatuek egindako ekarpenekin.

Zuzenketaaren justifikazioa:


Zuzenketa hau Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 2023ko urriaren 2ko agerraldian egindako ekarpenari dagokio.

Errenta nazional gordinaren %0,7 garapenerako laguntza ofizialera bideratzea estatuek 70eko hamarkadan Nazio Batuen esparruan hartutako konpromisoa da, eta, ondoren, garapen iraunkorrerako 2030 Agendaren 17. helburuan babestu da –euskal erakunde publiko guztiak onartu dute helburu hori-. Zentzu horretan, edozein gobernuak lankidetzarekin duen



konpromisoaren erreferentzia da, eta eraldatzeko, punta-puntakoa eta erreferentea den lankidetza-lege batek ez lioke uko egin behar. Gainera, gai honen adostasun politikoa sortzen du Legebiltzarrean.

Historikoki, gizarte zibilak erakunde publikoei lankidetzarako funtsak bideratzeko egindako eskaeretan, aurrekontu instituzionalari aplikatutako %0,7ko erreferentzia erabili da. Erreferentzia hori, ordea, Nazio Batuek ezarritako erreferentziaren oso azpitik egongo litzateke (errenta nazional gordina -Euskadiko kasuan, gehien hurbilduko litzatekeen zifra barne-produktu gordina litzateke). Ildo horretan, aurrekontu-teknizismoetan oinarritutako formulak aplikatzea, hala nola lege-aurreproiektuak proposatzen duena, hau da, guztizko gastu ez-finantzarioaren gaineko %0,7ko kalkulua egitea – kalkulu-formularren izendatzailea %8 baino gutxiago da –, horrek dakinaren gauza bakarra kopuru txikiagoak ematea da, eta horrek zailago eta motelago egingo du helburu horretara hurbiltzea. Beraz, proposatzen da aurrekontu osoa erreferentzia gisa erabiltzea eta aurrekontuaren bilakaera, gutxienez, aurrekontu osoaren parekoa izatea bermatzea.



ENMIENDA 4. ZUZENKETA (DE MODIFICACIÓN-ALDATZEKOA):

Azken xedapenetatik lehena. ELankidetza - Lankidetza eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

Aldatu egiten da 3. paragrafoko i) letra, eta honela dioen lekuan:

- i) Euskal lankidetza- eta elkartasun-politika publikoaren helburuak lortzeko beste funts publiko zein pribatu batzuk lortu, kudeatu eta transferitzea.

Aurrerantzean, hurrengoa esan behar du:

- i) Euskal lankidetza- eta elkartasun-politika publikoaren helburuak lortzeko beste funts publiko zein pribatu batzuk lortu, kudeatu eta transferitza. Horrela, Gobernu Kontseiluak baimena eman ondoren, bere aurrekontu-esleipenen funtsak finantza-lankidetzara bideratu ahal izango ditu, berme- eta inbertsio-funtsen, lagunza teknikoaren eta modalitate horretako beste edozein bideren bidez.

Zuzenketaaren justifikazioa:

Carolina Fundazioko zuzendari Sanahuja jaunak 2023ko urriaren 25eko agerraldian egindako ekarpenari erantzuten dio zuzenketa honek.

Proposatutako gehikuntzaren bidez, finantza-lankidetzarako tresnak aktibatzea bideragarri egin nahi da, organo baimentzaile eskuduna eta hura implementatzeko berariazko tresnak zehaztuz.



ENMIENDA 1. ZUZENKETA (de adición-gehitzeko)

Artículo 4 – Objetivos

Se añade la letra e), que dice:

- e) Fortalecer y acompañar a las entidades de la sociedad civil organizada, tanto de Euskadi como de los países y territorios del Sur, fomentando el tejido asociativo como símbolo de sociedades democráticas, inclusivas, horizontales y transformadoras.


Justificación de la enmienda:

Esta enmienda responde a la aportación realizada por la Coordinadora de ONGD de Euskadi en su comparecencia del 2 de octubre de 2023.

En un contexto donde los procesos democráticos se ven amenazados por ideologías neoconservadoras, los derechos humanos han sufrido retrocesos y sus defensores/as padecen persecución y criminalización, la cooperación descentralizada debe priorizar el fortalecimiento de las sociedades civiles en los respectivos países como garantía democrática, para que estas sociedades puedan definir sus propios modelos de desarrollo.

Una sociedad civil articulada y capacitada es esencial en cualquier sistema democrático. Representa y fomenta el pluralismo y puede contribuir a unas políticas más efectivas, un desarrollo equitativo y sostenible y un crecimiento integrador. Constituye un actor importante en la promoción de la paz y en la resolución de conflictos. Al articular las preocupaciones de la ciudadanía, las organizaciones de la sociedad civil operan en la esfera pública, tomando parte en iniciativas que refuerzan la democracia participativa. Encarnan una demanda creciente de una gobernanza transparente y responsable.

Las ONGD suelen articular su trabajo en terreno con socias locales, que habitualmente son a su vez organizaciones de la sociedad civil. Cuando es posible, se trabaja también con instituciones públicas locales, bien directamente bien en consorcio con esas organizaciones. En este sentido, potenciar sobre el terreno el papel de las entidades de la sociedad civil presenta ordinariamente grandes ventajas. Entre otras, dan estabilidad estratégica a las acciones de cooperación, especialmente en escenarios en los que las políticas públicas son muy volátiles y las rotaciones de cargos una constante, permiten trabajar articuladamente en las periferias sociales, donde las instituciones están menos presentes, ayudan a crear redes locales que fomentan la participación y el protagonismo de la población en la definición de su propio desarrollo y facilitan la creación de espacios de control social a la administración. Todas ellas deben ser un objetivo específico de la Ley de Cooperación y Solidaridad.



ENMIENDA 2. ZUZENKETA (DE MODIFICACIÓN-ALDATZEKOA):

Artículo 15 – Modalidades de cooperación y solidaridad


Se modifica, de tal manera que, donde dice:

- 1- Para desarrollar las actuaciones en materia de cooperación y solidaridad, el sector público vasco, en el marco de sus respectivas competencias, pone a disposición de la política pública de cooperación y solidaridad el conjunto de modalidades, instrumentos y procedimientos que considere necesarios para alcanzar de forma efectiva los objetivos de la presente ley.
- 2- El sector público vasco podrá llevar a cabo actuaciones en materia de cooperación y solidaridad directamente o a través, entre otras, de organizaciones no gubernamentales, organizaciones internacionales y multilaterales, y otras entidades públicas o privadas que realicen actuaciones de acuerdo con los objetivos y principios establecidos en la ley.
- 3- Las actuaciones necesarias para ejecutar la política de cooperación pueden realizarse con fondos propios de la administración correspondiente, con fondos delegados procedentes de otras administraciones o instituciones públicas o privadas, o con fondos transferidos por la propia ciudadanía.
- 4- El sector público vasco podrá promover el desarrollo humano y la sostenibilidad, la acción humanitaria y la educación para la transformación social mediante, entre otras, las siguientes modalidades:
 - a) Cooperación técnica y movilización de conocimientos: actuaciones centradas en el intercambio de conocimientos, experiencias de gestión y de diseño de políticas y otro tipo de intercambios que tienen como fin aumentar las capacidades institucionales y organizativas de los agentes de cooperación y solidaridad y compartir soluciones innovadoras y eficaces para afrontar los desafíos comunes.
 - b) Cooperación económica y contribuciones en especie: transferencia de bienes y recursos financieros, fundamentalmente en forma de donaciones, destinados a proyectos y otros instrumentos especializados.
 - c) Cooperación financiera: instrumentos especializados de carácter ético, social y solidario destinados al desarrollo socioeconómico y al incremento de las capacidades financieras de las instituciones y organizaciones del Sur.
 - d) Cooperación para la formación y generación de conocimiento: becas, intercambios y formaciones que tienen como objetivo incrementar las capacidades profesionales, técnicas y políticas de los agentes de cooperación y solidaridad, potenciar la investigación y ampliar la conciencia crítica y solidaria de la ciudadanía.

En adelante, diga:

Artículo 15 – Modalidades de cooperación y solidaridad

- 1- Para desarrollar las actuaciones en materia de cooperación y solidaridad, el sector público vasco, en el marco de sus respectivas competencias, pondrá a disposición de la política pública



de cooperación y solidaridad el conjunto de modalidades, instrumentos y procedimientos que considere necesarios para alcanzar de forma efectiva los objetivos de la presente ley.

2- El sector público vasco podrá llevar a cabo actuaciones en materia de cooperación y solidaridad directamente o a través, entre otras, de organizaciones no gubernamentales, organizaciones internacionales y multilaterales, y otras entidades públicas o privadas. Todas las actuaciones, realizadas directa o indirectamente, responderán a los principios y enfoques previstos en la presente ley, y se regirán por los mismos estándares de calidad, rendición de cuentas, transparencia y evaluación.

3- Las actuaciones necesarias para ejecutar la política de cooperación pueden realizarse con fondos propios de la administración correspondiente, con fondos delegados procedentes de otras administraciones o instituciones públicas o privadas, o con fondos transferidos por la propia ciudadanía.

4- Las administraciones públicas vascas, velarán por la complementariedad, coordinación y coherencia en sus actuaciones con respecto a las que promueven el resto de agentes, especialmente las organizaciones no gubernamentales, según lo establecido en el artículo 7, letra e).

5- El sector público vasco podrá promover el desarrollo humano y la sostenibilidad, la acción humanitaria y la educación para la transformación social mediante, entre otras, las siguientes modalidades:

a) Cooperación técnica y movilización de conocimientos: actuaciones centradas en el intercambio de conocimientos, experiencias de gestión y de diseño de políticas y otro tipo de intercambios que tienen como fin aumentar las capacidades institucionales y organizativas de los agentes de cooperación y solidaridad y compartir soluciones innovadoras y eficaces para afrontar los desafíos comunes.


b) Cooperación económica y contribuciones en especie: transferencia de bienes y recursos financieros, fundamentalmente en forma de donaciones, destinados a proyectos y otros instrumentos especializados.

c) Cooperación financiera: instrumentos especializados de carácter ético, social y solidario, tales como los de crédito o garantía, destinados al desarrollo socioeconómico y al incremento de las capacidades financieras de las instituciones y organizaciones del Sur.

d) Cooperación para la formación y generación de conocimiento: becas, intercambios y formaciones que tienen como objetivo incrementar las capacidades profesionales, técnicas y políticas de los agentes de cooperación y solidaridad, potenciar la investigación y ampliar la conciencia crítica y solidaria de la ciudadanía.


Justificación de la enmienda:

Esta enmienda responde a las aportaciones realizadas por la Coordinadora de ONGD de Euskadi en su comparecencia del 2 de octubre de 2023 y por el Sr. Sanahuja, director de la Fundación Carolina, en su comparecencia del 25 de octubre de 2023.



Con las adiciones propuestas en los párrafos 2 y 4 se pretende garantizar que la cooperación directa responde a los mismos estándares de calidad y rendición de cuentas que las subvenciones concedidas en régimen de concurrencia; que estas ayudas estarán siempre dirigidas a alcanzar los objetivos de la ley, respetando sus principios y enfoques independientemente del carácter público o privado, local, nacional o internacional del agente que las lleve a cabo; y que a través de ellas no se sustituirá el trabajo realizado por los agentes sociales, sino que se buscará la coherencia, complementariedad y coordinación.

La adición propuesta en el párrafo 5 apartado c) pretende hacer viable la activación de instrumentos específicos para la implementación de la cooperación financiera:



ENMIENDA 3. ZUZENKETA (DE MODIFICACIÓN-ALDATZEKOA):

Artículo 16 – Financiación

Se modifica, de tal manera que, donde dice:

- 1- Las administraciones públicas vascas, en el marco de sus competencias, consignarán anualmente en sus respectivos presupuestos los recursos económicos necesarios para el desarrollo de las funciones y atribuciones contempladas en la presente ley.
- 2- Con el fin de avanzar en el objetivo común de destinar el 0,7% de la renta nacional bruta junto al resto de las instituciones vascas y del Estado, la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi establecerá anualmente las aportaciones destinadas a la cooperación y a la solidaridad para alcanzar el 0,7% sobre el gasto total no financiero en el horizonte del año 2030, con objetivos intermedios fijados a través de los planes plurianuales.
- 3- A estos efectos, los recursos económicos destinados presupuestariamente a la política pública vasca de cooperación y solidaridad podrán incrementarse con aportaciones procedentes de personas físicas o jurídicas, organismos e instituciones estatales e internacionales, públicas o privadas.


En adelante, diga:

Artículo 16 – Financiación

- 1- Las administraciones públicas vascas, en el marco de sus competencias, consignarán anualmente en sus respectivos presupuestos los recursos económicos necesarios para el desarrollo de las funciones y atribuciones contempladas en la presente ley.
- 2- El sector público vasco comparte con el resto de las instituciones del Estado el objetivo común de destinar el 0,7% de la renta nacional bruta a la ayuda oficial al desarrollo.
- 3- El Presupuesto General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Parlamento Vasco, destinará anualmente, al menos, el 0,7% de su gasto total a la política de cooperación y solidaridad.
- 4- El incremento anual del presupuesto de cooperación será, como mínimo, proporcional al aumento anual del presupuesto general; todo ello, sin tener en cuenta otros fondos que contribuyan al alcance de los objetivos de desarrollo global.
- 5- A estos efectos, los recursos económicos destinados presupuestariamente a la política pública vasca de cooperación y solidaridad podrán incrementarse con aportaciones procedentes de personas físicas o jurídicas, organismos e instituciones estatales e internacionales, públicas o privadas.


Justificación de la enmienda:

Esta enmienda responde a la aportación realizada por la Coordinadora de ONGD de Euskadi en su comparecencia del 2 de octubre de 2023.



Destinar el 0,7% de la renta nacional bruta a ayuda oficial al desarrollo es compromiso asumido en los años 70 por los Estados en el marco de las Naciones Unidas y que posteriormente ha sido respaldado en el objetivo 17 de la Agenda 2030 para el desarrollo sostenible -asumida por todas las instituciones públicas vascas-. En este sentido, supone una referencia del compromiso de cualquier Gobierno con la cooperación y al que una ley de cooperación que se erige transformadora, puntera y referente no debería renunciar. Se trata, además, de una cuestión que genera consenso político en todo el arco parlamentario.

Históricamente, en las demandas realizadas por la sociedad civil a las instituciones públicas para que destinen fondos a cooperación, se ha utilizado la referencia del 0,7% aplicada al presupuesto institucional. Esta referencia, sin embargo, estaría muy por debajo de la referencia establecida por Naciones Unidas (la renta nacional bruta -en el caso de Euskadi la cifra que más se aproximaría sería el producto interior bruto). En este sentido, aplicar fórmulas basadas en tecnicismos presupuestarios, como la propuesta en el anteproyecto de ley de hacer el cálculo del 0,7% sobre el gasto total no financiero -que disminuye sobre un 8% el denominador de la fórmula de cálculo-, lo único que conlleva es dotar de cantidades menores y que harán más difícil y lento acercarse a ese objetivo. Se propone, por tanto, utilizar el presupuesto total como referencia y garantizar que la evolución presupuestaria sea, al menos, equivalente a la del presupuesto total.



ENMIENDA 4. ZUZENKETA (DE MODIFICACIÓN-ALDATZEKOA):

Disposición final primera. Elankidetza - Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad.

Se modifica la letra i) del apartado 3, de tal manera que, donde dice:

- i) Obtener, gestionar y transferir fondos, públicos o privados, para alcanzar los objetivos de la política pública vasca de cooperación y solidaridad.

En adelante, diga:

- i) Obtener, gestionar y transferir fondos, públicos o privados, para alcanzar los objetivos de la política pública vasca de cooperación y solidaridad. De este modo, podrá destinar, previa autorización del Consejo de Gobierno, fondos de sus asignaciones presupuestarias a la cooperación financiera, en forma de fondos de garantía, de inversión, apoyo técnico y cualquier otra vía dentro de esa modalidad.

Justificación de la enmienda:

Esta enmienda responde a la aportación realizadas por el Sr. Sanahuja, director de la Fundación Carolina, en su comparecencia del 25 de octubre de 2023.

La adición propuesta pretende hacer viable la activación de instrumentos de cooperación financiera, concretando el órgano autorizador competente y los instrumentos específicos para la implementación de la misma.